


# Artelekuko Mugimenduzko Irudien Laborategia



## Sarrera


Artelekuren ibilbidea definitu duten ezaugarriek jarraipena emanaz, 2008ko programazioak hezkuntza independentea eta praktika artistiko berritzaileenak sustatzen jarraituko du. Horretarako, lanerako plataforma berriak ipiniko dira abian, praktika artistiko garaikideen barruan kokatzen diren hiru eremutan lan egingo dutenak: *Audiolab*, *soinu laborategia*; *Gorputzaren Praktiken Laborategia* eta *Mugimenduzko Irudien Laborategia*.

Laborategiak garraigarriak diren ekoizpen, prestakuntza eta erakusketa egitura txiki gisa ulertzen ditugu. Mugimenduak eta eztabaida interesgarrienak non dauden detektatuko dituzten sismografo gisa funtzionatuko dute. Izaera garraigarriak beraien programa Artelekun garatzeko aukera eskainiko die, baina baita kanpoan ere, artista, kolektibo eta kultura-eragileekin elkarlanean, kultura-trukaketa eta talde-lana sustatuz.

Isabel Herguera animaziogileak eta Lucía Onzain artistak koordinatuko duten Mugimenduzko Irudien Laborategiak ikus-entzunezko praktika esperimentalenak aztertuko ditu (zinema, bideoa, audioa). Aldi berean, "zinema berriak" deitu direnekin lan egingo da. Batik bat narrazio eta muntaia forma berriekin esperimendatuko duten lanak ekoitziko dira, bai ez-fikziozko formatuetan bai fikziozkoetan. Arreta berezia eskainiko zaio animazio garaikideari, ikus-entzunezko lengoia horrek berezkoa duen izaera berritzaile eta esperimendal proposamen artistiko berrien katalizatzaile gisa garrantzia berezia baitu. Ikus-entzunezkoen inguruko azterketa gonbidatutako artistekin elkarlanean antolatuko diren tailer eta mintegien bitartez burutuko da.

*Mugimenduzko Irudien Laborategiak* hiru tailer antolatu ditu: "Hitzetik Fadora, Fadotik Irudira", "Iluna argitzen" eta "Cucinema", animazio pelikulekin osatutako programa bat eta "Berbaoc" instalazio ikusgai egongo den gune dokumentala ere bai.

2008an, seigarren urtez, Artelekuk *ANIMAC- Kataluniako Animazioko Zinearen Nazioarteko Erakusketarekin* batean programa berezi bat prestatuko du Donostiarako: Animac Artelekun. Animac Artelekun programak nazioartean, animazioaren eremuan, egiten diren lan interesgarrienak ikusteko aukera eskainiko du eta baita bestelako zenbait proiektu ere, Isabel Herguerak Donostiarako bereziki hautatutakoak.



## Mugimenduzko Irudien Laborategia-Tailerrak

### 1) Hitzetik Fadora, Fadotik Irudira

*Animazioko Zinearen Lantegia*

**Regina Pessoa eta Abi Feijók eskainia**

Animazioko lantegi honek bi zati izango ditu. Lehenengoa teorikoa izango da eta, poesia bat animazioko gidoi bati egokitzeko era ezberdinak landuko dira. Bigarrena praktikoa izango da eta, aurrez landutako gidoian oinarritutako film labur bat egingo da.

“Hitzetik fadora, Fadotik Irudira” tailerrak poesia eta zinema batuko ditu. Lantegiaren lehen zatian hamabi pertsonen ariketa literario bat burutuko dute elkarrekin. Ekainean egingo duten tailerrean, Regina Pessoa eta Abi Feijóren laguntzarekin sortuko duten animazio filmaren gidoia izango da ariketa literario hori.

Lantegi teorikoa

Martxoaren 3tik 7ra, 10:00-14:00

Parte hartzaileak: 12 gehienez

Lantegi praktikoa

Ekainaren 19tik uztailaren 18ra, 10:00-14:00 eta 16:00-20:00

Parte hartzaileak: 6 gehienez

Info +:

[\[www.ciclopefilmes.com\]](http://www.ciclopefilmes.com)[\[www.awn.com/filmografo\]](http://www.awn.com/filmografo)



Irudia: "História Trágica com Final Feliz"; Regina Pessoa.

## 2) Cucinema

*Soinu, Irudi & Sukaldaritza Lantegia*

**CuCinema di Genzanok** eskainia

Ostirala, martxoak 7, 15:00-20:30

Parte hartzaileak: ez dago kopuru mugaturik.

CuCinema laborategi bat da, eta "ikusleak" modu aktiboan parte hartzen du bere eskura jarritako "lehengaiak" zentzumenekin esperimentatuz.

Lantegia materialak eraldatzean datza, beste izate plano batzuetara eramanez: filma, batik bat, eskuekin ukitzen da eta sentitzen da, eta hainbat "teknikaren" bidez prestatu ondoren, proiektorearen "labetik" pasatzen da mugimenduzko irudi argidun bilakatuz. Emaiza 16 mm-ko zeluloidean zuzenean eskuz margotutako filma izango da eta horrekin batera dastatuko den italiar plater gastronomiko bikaina.

Cucinema jendearen parte-hartzea ezinbestekoa duen ekitaldia da, artea eta gastronomia uztartzen dituena. Interesa duen pertsona oro ekimenaren partaide bilakatu daiteke, filma marraztuz edo afaria prestatuz; martxoaren 7an, 15:00ak aldera, Artelekura bertaratzea besterik ez du horretarako. Egunean bertan sortzen den pelikula partaideek afaltzen duten bitartean proiektatzen da eta ondoren desagerrarazi. Behin bakarrik goza litekeen sormen-lana da, saio horretan prestatzen den afaria bezala.

Info +:

[\[www.amenicuc.org\]](http://www.amenicuc.org)



Irudia: Cucinema di Genzano

### 3) Iluna argitzen

*Animazioko lantegia*

**Coke Riobo & Lourdes Villagómezek** eskainia

Elkarlana: **Lucia Onzain**

Martxoaren 3tik 7ra, 17:00-21:00

Parte hartzaileak: 12 gehienez

Lantegian filma labur bat egingo da pixelaren teknika eta marrazkia erabiliz. Gorputzaren koreografiatik eta mugimendutik abiatuta, parte hartzaileek argiz marraztuko dute Lucía Onzainek emakumeen aurkako bortizkeriaren inguruan osatutako pieza bat.

“Iluna argitzen” arazo garaikide baten, genero indarkeriaren, inguruko hausnarketa ariketa irekia da. Nahi duen orok parte hartu dezake bere ekarpen pertsonala eginez. Erreflexio komun hori gauzatzeko teknika berezia erabiliko da, argia erabiliz marraztea ahalbidetzen duen teknika.

## Animac Artelekun

**2008ko martxoaren 4tik 8ra**

**Koordinazioa:** Isabel Herguera

[\[www.animac.info\]](http://www.animac.info)

Animac-Kataluniako Animazioko Zinearen Nazioarteko Erakusketaren izaerarekin eta Artelekuren diziplinarteko filosofiarekin bat eginez, ANIMAC aldian Artelekun programatutako jardueren helburua animazioko zinearen lan independentea erakustea, eta lan teknikak eta prozesuak jendeari ezagutaraztea da.



### Espazio dokumentala

Animac erakustaldiak dirauen bitartean, Artelekuko erakustaretoan Berbaoc instalazioa egongo da ikusgai. *Berbaoc* 2007an Artelekun egindako lantegiaren emaitza da. Iazko lantegia Vuk Jevremovicek zuzendu zuen eta José Belmonte, Gustavo Díaz, Irati Fernández, Izbene Oñederra eta Mercedes Sánchezek parte hartu zuten. Laburmetraia Edu Elosegiren laguntza teknikoarekin gauzatu zen. *Berbaoc*-ek Xabier Erkiziak egindako soinu pieza bat du oinarri, eta ahotsa da instrumentu bakarra. Tailerreko partaideek hitzen artean gelditzen diren soinuei irudiak ipini zizkieten talde lan bat burutu zuten.



## Animac Artelekun-Proiekzioak

### **-Asteartea, martxoak 4, 19:00etan Artelekun**

*Icebergaren tontorra: eromenari buruzko erretratuak*

Erik van Drunenek hautatu eta aurkeztutako film laburrak.



Irudia: "Camouflage", Jonathan Hodgson.

### **-Asteazkena, martxoak 5, 19:00etan Artelekun**

*Begi bat gurpilean*

Abi Feijóren eta Regina Pessoaaren lan-sorta.

Abi Feijó eta Regina Pessoa Ciclope films-eko fundatzaileak dira eta animazio prozesuaren alderdi artistikoena eta artisauena lantzen duten produkzioak egiten dituzte.

[\[www.ciclopefilmes.com\]](http://www.ciclopefilmes.com)[\[www.awn.com/filmografo\]](http://www.awn.com/filmografo)



Irudia: "História Trágica com Final Feliz"; Regina Pessoa.



**-Osteguna, martxoak 6, 19:00etan Artelekun**

**BROU ANIMAC**

Azken urtean egindako animazioko film labur independenteen erakusketa. Isabel Herguerak egindako hautapena.



Irudia: "Hezurbeltzak", Izibene Oñederra

**Larunbata, martxoak 8, 18:00etan Kutxa aretoan (Arrasate 12, Donostia)**

*Haurrentzako emanaldia*

Haurrentzako animazioko film laburrak (6-12 urte).

Elkarrizketarik gabe



Irudia: "Aukanek", Madina Iskhakova.



## **Biografiak-Gonbidatuak**

**Erik van Drunen-ek** animaziogintza ikasketak egin zituen. 1992tik *Holandako Animation Film Festival* jaialdiarekin elkarlanean aritzen da programa osatzeko aholkulari gisa. *Netherlands Institute for Animation Film* eta *Holland Animation Association* erakundeko kidea da.

**Cucinema** besteren artean Alex Mendizabalek sortutako egoera sortzaile berezia da, nagusiki zinema eta gastronomia modu ireki eta esperimentalean nahasten dituena. Cucinema Italiako Erromako probintzian dagoen Genzano-ko, ogiaren hiriko, Tnello-n jaio zen 2002an. Cucinema izena “cucina” (sukaldea) eta “cinema” hitzen arteko nahasketa da. Proposamen honek leku eta denbora tarte berean, zehaztu gabeko jende kopuru bat biltzea du helburu, 5 bat orduko tartean filme bat eta Erromako bazkari-afari goxo bat prestatuko dutenak.

**Abi Feijó** animaziogilea da. 1984an izan zuen animaziogintzarekin lehen harremana. 1985ean Kanadako National Film Board-en ikastaro bat egin eta bere lehen lana *Oh que Calma* zuzendu zuen. Portora itzuli zenean Filmografo kooperatiba ireki zuen, animazio lan independenteak ekoitzi eta banatzeko helburuarekin. 2002an Cíclope Films sortu zuen Regina Pessoarekin, animaziogintza modu artesanalean lantzen dituzten pelikulak laguntzen dituzte. Cíclope Films-en lehen produkzioak, Regina Pessoren “Historia trágica con final feliz” izenekoak sekulako sari piloak lortu zituen.

**Regina Pessoa** animaziogilea da. Portoko Arte Ederren eskolan egin zituen ikasketak. 1992an Filmógrafo kooperatiban hasi zen lanean. 1999an bere lehen pelikula, “A noite” zuzendu zuen, igeltsuzko plakak erabili zituen bertan. 2002an Cíclope Films sortu zuen Abi Feijórekin, animaziogintza modu artesanalean lantzen dituzten pelikulak laguntzen dituzte. Cíclope Films-en lehen produkzioak, Regina Pessoren “Historia trágica con final feliz” izenekoak sekulako sari piloak lortu zituen

**Coke Riobó** animaziogilea da. 2007an animazio film onenari saria irabazi zuen “El viaje de Said” lanagatik. Egun ECAM-en (*Escuela de Cinematografía y del Audiovisual de Madrid*) irakaslea da, plastilina lanabes gisa erabilita animazio lanak burutzen irakasten du. Teknika horrekin egin ditu bere zenbait pelikula: *La telespectadora* (2001), *Se abre el telón* (serie de 26 capítulos para plus.es, 2002), *Que las noches sean son* (videoclip para El Combo Linga, 2002) y *El viaje de Said* (2006).

**Lourdes Villagómez.** Animaziogilea. Mexiko eta Los Angelesen animazio komertzial eta independenteko proiektuetan lan egin du. Morelos Estatuko (Mexiko) Unibertsitate Autonomoko Ikus Arteen Departamentuan animazio ikasketen koordinatzaile da. New Yorkeko Arte Modernoko Museoaren nazioarteko programan parte hartu zuen 1995ean eta *Fulbright-Garcia Robles Grant* saria jaso zuen bere lan akademikoagatik. Komunikazio ikasketak egin zituen Xochimilco- Unibertsitate Autonomo Metropolitanan eta Kaliforniako Arte Institutuan animazio esperimentaleko Arte Ederretako Masterra eskuratu zuen.

## **Biografiak-Koordinatzaileak**

**Isabel Herguera** animaziogilea da. Euskal Herriko Unibertsitateko eta Duseldorf-eko (Alemania) Kustakademie-ko arte ederretako lizentziatua. Kaliforniako Arte Institutuan Master of Fine Arts bat eskuratu zuen 1994an. 2002ko martxoaz geroztik Animac –Kataluniako Animazio Zinemako Nazioarteko Erakusketako zuzendaria da Lleidan. Goya sarien 2006ko edizioan animaziozko film labur onenaren sarirako proposatu zuten *La gallina ciega* lanarekin. Aipatutako lanaz gain, beste sei pelikula egin ditu Isabel Herguerak: *Muertitos* (1994), *Baquine* (1991), *El sueño de Iñigo* (1990), *Cante de ida y vuelta* (1989), *Safari* (1988) eta *Spain Loves you* (1987).

**Lucia Onzain** artista da. Bartzelonako Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean lizentziatua, eskultura adarrean. EHU-UPV-ko eskultura departamentuan doktratua lortu zuen. New York University-n *Computer and Video Art* masterra egin zuen. Erromako Espainiar Akademiaren beka eta ikasketa artistikoak AEBn luzatzeko Fulbright laguntza jaso ditu. Bere lana nazioartean ikusgai egonda, besteren artean : Galería Antonio Barnola (Bartzelona), Sala Rekalde Area 2 (Bilbao), *Cold City Gallery*, Toronto (Kanada) eta Galería Ursula Krizinger (Austria). Bere lanen artean ondokoak aipa daitezke: *Putá* (1998), *Hola Frida ¿somos amigas?* (1999) eta *Sin título* (2000-2002.)